4. ¿Ha valorado el Gobierno Municipal la posibilidad de ampliar Oporretan Euskaraz al mes de agosto?

San Sebastián, 6 de febrero de 2026
Izar Hernando Ibero

concejala del grupo municipal EH Bildu".

Intervienen en este punto el Sr. Kerman Orbegozo y la Sra. Hernando Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al

Diario de Sesiones.

**8. – Interpelazioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, identifikatuen jatorriagatiko datuak ematearen gainean.**

Interpelazio hau irakurritzat eman da:

“Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, interpelazioa egiten dio Martin Ibabe zinegotzi delegatuari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Azaroko batzordeetan Alderdi Popularrak egindako galdera batzuei erantzunez, segurtasuneko zinegotzi delegatuak hiriko kokaleku batean zeuden pertsonen jatorriagatiko datuak eman zituen, aurrekari polizialen inguruko datuak ematearekin batera. Horri dagokionez, kezkatzen gaitu jatorriagatiko datuak gardentasunaren izenean zabaltzeak dakarren arriskuak, diskurtso arrazista zabaltzeko eta elikatzeko balio dezakeelako.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta eman zituen Udal Gobernuak batzordeetan, Alderdi Popularraren eskariei erantzunez, kokaleku batean identifikatutako pertsonen jatorriagatiko datuak?
- Zein da Udal Gobernuaren eta segurtasuneko zinegotzi delegatuaren iritzia jatorriagatiko datuak ematearen inguruan? Segurtasunari mesede egiten dioten irizpideetan oinarrituta al dago jatorriagatiko datuak ematea? Jakitun al da segurtasuneko zinegotzi delegatua jatorriagatiko datuak emateak diskurtso arrazistak zabaltzeko balio dezakeela?

Donostian, 2026ko otsailaren 6a

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Izar Hernando andreak eta Martin Ibabe jaunak hitz

**8. – Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la comunicación de datos referentes al origen de los identificados.**

Se da por leída la siguiente interpelación:

“Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH BILDU, presenta, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente interpelación al concejal delegado de Seguridad, Martín Ibabe, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

En respuesta a algunas de las preguntas formuladas por el Partido Popular en las comisiones de noviembre, el concejal delegado de Seguridad aportó datos referentes al origen las personas que se encontraban en un asentamiento de la ciudad, así como datos sobre sus antecedentes policiales. A este respecto, nos preocupa el riesgo que supone la difusión de datos referentes al origen de las personas en nombre de la transparencia, porque puede servir como acicate para difundir y alimentar discursos racistas.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué motivo el Gobierno Municipal aportó en la comisión, en respuesta a las peticiones del Partido Popular, datos referentes al origen de las personas identificadas en un asentamiento?
- ¿Qué opinión tienen el Gobierno Municipal y el concejal delegado de Seguridad sobre la aportación de datos referentes al origen de las personas? ¿La aportación de datos referentes al origen se basa en criterios que favorezcan la seguridad? ¿Es consciente el concejal delegado de Seguridad de que la aportación de datos referentes al origen pueden servir de acicate para difundir discursos racistas?

San Sebastián, 6 de febrero de 2026

Izar Hernando Ibero
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Intervienen en este punto la Sra. Hernando Ibero y

egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

el Sr. Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(10:02an Markel Ormazabal jauna bilerara bertaratu da).*

*(A las 10:02h el Sr. Ormazabal Gaztañaga se incorpora a la sesión).*

*(10:05etan Victor Lasa jauna bilerara bertaratu da).*

*(A las 10:05h el Sr. Lasa Briz se incorpora a la sesión).*

* * *

Bertaratutako guztien adostasunaz, batzordeburuak 9., GZK 3. eta GZK 4. gaiak batera jorratzea erabaki du.

Con la conformidad de todos los y las presentes, el presidente decide tratar de forma conjunta los asuntos n.º 9 y n.º FOD 3 y FOD 4.

* * *

**9.- Interpelazioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Aukerak programari buruzkoa.**

**9.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, en relación con el programa Aukerak.**

Izar hernando andreak interpelazio hau irakurritzat eman du:

La Sra. Hernando Ibero da por leída la siguiente interpelación:

“Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, interpelazioa egiten dio Maria Jesús Idoeta zinegotzi delegatuari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

“Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH BILDU, de acuerdo con lo establecido en el artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente interpelación a Dña. Maria Jesús Idoeta, concejala delegada de Acción Social, para que dé explicaciones al respecto en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilaren 26an Herrerako Jolastokieta 4n emandako desalojoaren biharamunean alkateak emandako agerraldian jakinarazi zuenez, “Aukerak” programa abiarazi du Udalak. Programaren inguruan emandako azalpenak ordea, ez dira oso argigarriak izan. Antza, ikasketa-plan bat, gizarte larrialdietarako udal zerbitzuarekin lankidetzan aritzea edo Donostian errotzea dira “Aukerak” programaren baliabide hartzaile izateko baldintzak. Martxoaren 31ra bitarte udal baliabideetan lo egiteko aukeraz gain, “ibilbide pertsonalizatuak” garatzeko baliabideak ere sartuko lirateke “Aukerak” programaren baitan. Ordea, programa honek jasoko dituen baliabide zehatzak zein diren ez da azaldu.

JUSTIFIKAZIOA

Según anunció el alcalde en la comparecencia dada el 26 de enero, el día siguiente al desalojo de Jolastokieta 4 en Herrera, el Ayuntamiento ha puesto en marcha el programa "Aukerak". Sin embargo, las explicaciones que dio sobre el programa no han sido muy aclaratorias. Al parecer, las condiciones para beneficiarse de los recursos que ofrece el programa "Aukerak" son las siguientes: un plan de estudios, la colaboración con el Servicio Municipal de Urgencias Sociales o el arraigo en San Sebastián. Además de la posibilidad de pernoctar en los recursos municipales hasta el 31 de marzo, el programa "Aukerak" también incluye recursos para el desarrollo de "itinerarios personalizados". Sin embargo, no se ha explicado de qué recursos concretos se va a dotar este programa.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

Por ello, la concejala abajo firmante formula la siguiente INTERPELACIÓN:

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak zehazki azaldu "Aukerak" programaren baitan dauden baliabideak zein diren?

- Zein da "Aukerak" programak ekarriko duen berrikuntza? Zein baliabide berri sortuko dira "Aukerak" programaren baitan?

Donostian, 2026ko otsailaren 6a

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

- ¿Por qué el Gobierno municipal no ha explicado con exactitud cuáles son los recursos incluidos en el programa "Aukerak"?

- ¿Cuál es la novedad del programa "Aukerak"? ¿Qué nuevos recursos se van a crear dentro de este programa?

San Sebastián, 6 de febrero de 2026

Izar Hernando Ibero
Concejal del Grupo Municipal Popular".

**GZK 3.- Premiazko agerraldi eskaera, Gizarte Zerbitzuetako eta Ekintza Komunitarioko zinegotzi ordezkariarena, EAJ/PNV Taldeak aurkeztua, etxerik gabeko pertsonei arreta emateko Aukerak programari buruzkoa.**

"EAJ/PNV taldeko bozeramaile den Olatz Yarza Garagorrik, Osoko Bilkuraren Erregelamendu Organikoaren 136. artikuluaren babesean, Gizarte Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako zinegotzi ordezkari María Jesús Idoetaren agerraldia eskatu du, berak hala eskatuta, Pertsonen Zerbitzu Batzordean etxerik gabeko pertsonei arreta emateko Aukerak programari buruzko informazioa emateko.

JUSTIFIKAZIOA

Udal talde honen ustez, komenigarria da Gizarte Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako zinegotzi delegatuak, berak hala eskatuta, informazioa ematea Pertsonen Zerbitzu Batzordeari, Udalak abian jarritako etxerik gabeko pertsonei arreta emateko Aukerak programaren edukiari eta helburuei buruz.

Donostia, 2026ko otsailaren 12a

Olatz Yarza Garagorri
EAJ/PNV taldeko bozeramailea".

**FOD 3.- Solicitud de Comparecencia urgente de la Concejala de Servicios Sociales y Acción Comunitaria, presentada por el Grupo EAJ/PNV, sobre el programa Aukerak de atención a personas sin hogar.**

"Olatz Yarza Garagorri, Portavoz del grupo EAJ/PNV, al amparo del artículo 136 del Reglamento Orgánico del Pleno, solicita la comparecencia de la Concejal Delegada de Servicios Sociales y Acción Comunitaria, María Jesús Idoeta, a petición propia, para informar en la Comisión de Servicios a las Personas sobre el programa Aukerak de atención a personas sin hogar.

JUSTIFICACIÓN

Este grupo municipal considera conveniente que la Concejala Delegada de Servicios Sociales y Acción Comunitaria aporte a la Comisión de Servicios a las Personas, a petición propia, información sobre el contenido y objetivos del programa Aukerak de atención a personas sin hogar puesto en marcha por este ayuntamiento.

Donostia, 12 de febrero de 2026

Olatz Yarza Garagorri
Portavoz del grupo EAJ/PNV".

**GZK 4.- Premiazko agerraldi eskaera, PSE-EE Taldeak aurkeztua, Aniztasun, Inklusio eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkariarena, Ondarreta – La Sirenako Gazte Aterpetxearen egoerari buruzkoa.**

"Udalbatzaren Organo Araudiaren 136. artikuluaren babesean, Iñigo García Villanueva jaunak, Aniztasuneko, Inklusioko eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkariak, eskatzen du 2026ko otsailaren

**FOD 4.- Solicitud de Comparecencia urgente del concejal de Diversidad, Inclusión y Medio Ambiente, presentada por el Grupo PSE-EE, sobre la situación del Albergue Juvenil de Ondarreta . La Sirena.**

"Al amparo del vigente artículo 136 del Reglamento Orgánico del Pleno, D. Íñigo García Villanueva, Concejal Delegado de Diversidad, Inclusión y Medio Ambiente solicita a petición

16an egingo den Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordearen bilkurako gai-zerrendan premiaz txertatzea bere agerraldia, Ondarreta-La Sirenako Gazte Aterpetxearen egoera azaltzeko.

Donostia, 2026ko otsailaren 12an

Iñigo García Villanueva
Aniztasuneko, Inklusioko eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria".

Izar Hernando andreak, Maria Jesus Idoeta andreak, Iñigo Garcia jaunak, Arantza Gonzalez andreak, Vanessa Velez andreak eta Iñaki Gabarain jaunak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(10:19an Martin Ibabe jauna bileratik atera da eta 10:25ean berriro sartu da).*

*(10:28etan Borja Corominas jauna bilerara bertaratu da eta 10:46etan bilerarik atera da).*

*(10:30ean Markel Ormazabal jauna bileratik atera da eta 10:40an berriro sartu da).*

*(10:48an Victor Lasa jauna eta Vanessa Velez andrea bileratik atera dira).*

*(10:49an Kerman Orbegozo jauna bileratik atera da).*

**10. – Interpelazioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Donostiako Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V.Plana (2026-29) dela eta.**

Interpelazio hau irakurritzat eman da:

"EH BILDU Udal Taldeko zinegotzi Sandra Barrenetxea Díezek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, INTERPELAZIO hau aurkezten dio Ana Oyarbide zinegotzi ordezkariari, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO DONOSTIAKO V. UDAL PLANAri (2026-2029) buruz, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean ahoz erantzuteko.

JUSTIFIKAZIOA

2025eko urrian, Emakumeen eta Gizonen

propia, incluir con urgencia en el Orden del Día de la Comisión de Servicios a las Personas a celebrar el próximo día 16 de febrero de 2026, su comparecencia con el objeto de explicar la situación del Albergue Juvenil de Ondarreta-La Sirena.

Donostia/San Sebastián, a 12 de febrero de 2026

Iñigo García Villanueva
Concejal delegado de Diversidad, Inclusión y Medio Ambiente".

Intervienen en este punto la Sra. Hernando Ibero, la Sra. Idoeta Madariaga, el Sr. García Villanueva, la Sra. González García, la Sra. Vélez de Pablos y el Sr. Gabarain Gaztelumendi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 10:19h el Sr. Ibabe Eceiza se ausenta de la sesión y se vuelve a incorporar a las 10:25h).*

*(A las 10:28h el Sr. Corominas Fisas se incorpora a la sesión y se ausenta a las 10:46h).*

*(A las 10:30h el Sr. Ormazabal Gaztañaga se ausenta de la sesión y se vuelve a incorporar a las 10:40h).*

*(A las 10:48h el Sr. Lasa Briz y la Sra. Vélez de Pablos se ausentan de la sesión).*

*(A las 10:49 el Sr. Orbegozo Uribe se ausenta de la sesión).*

**10. – Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre el V Plan para la igualdad de de mujeres y hombres del Ayuntamiento de Donostia (2026-29).**

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Sandra Barrenetxea Díez, concejala del Grupo Municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la Delegada Ana Oyarbide para su respuesta oral en la Comisión de Servicios a las Personas, sobre el V PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DEL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA (2026-29)

JUSTIFICACIÓN

En octubre de 2025 se presentó la propuesta del V

Berdintasunerako Donostiako V. Udal Planaren proposamena aurkeztu zen.

Berdintasun Kontseiluan plan horren ardatzak eta edukiak azaldu ziren, eta hurrengo kontseiluan ekarpenak egiteko aukera eman zen. Hala egin genuen elkarte eta talde politiko batzuek, eta dokumentuaren edukiari dagokionez oso kezkagarriak ziren gai batzuen berri eman genuen, besteak beste, planak ez zuela aurrekonturik.

Euskadiko berdintasun-politikak arautzen dituen 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 16. artikuluaren arabera, berdintasun-planek aurrekontua eta helburuak, ekintzak eta ezarpen-, jarraipen-, ebaluazio- eta kontu-emateko sistemak izan behar dituzte, dagozkien adierazleekin. Gobernu Batzordeak onartutako planak ez du oraindik helbururik, eta, batez ere, aurrekontu espezifikorik, aurreikusitako ekintzak aurrera eraman ahal izateko. Era berean, 16.5 artikuluak ezartzen du plan hori erakundearen beraren helburu estrategikoetan txertatu behar dela, eta horri buruz ere ez dugu informaziorik.

Hori dela eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako INTERPELAZIOA:

- Zergatik ez du aurrekonturik Berdintasunerako V. Planak? Nola garatuko dituzue ekintzak, horiek aurrekontu-konpromisorik ez badute?

- Berdintasunerako plan instituzional guztiei buruzko txostena egin behar du Emakundek, onartu aurretik, 16.6 artikuluak xedatutakoaren arabera. Plan honi buruzko txostena egin al du? Zer gomendio eman ditu Emakundek horren inguruan?

- Zergatik mantentzen da berdintasunerako aurrekontu-konpromiso gisa aurrekontu orokorraren % 1a, gaur egun berdintasun-politiketarako ezarritako kalitate-estandarrak % 1,5ekoak badira?

- Nola txertatuko dira plan honen helburuak, adierazleak eta ekintzak Udalaren plan estrategikoan?

Donostian, 2026ko otsailaren 6an

Sandra Barrenetxea Díez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Iñigo Garcia jaunak eta Sandra Barrenetxea andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren

Plan para la igualdad de mujeres y hombres de Donostia.

En el Consejo de Igualdad se explicaron los ejes de este Plan y sus contenidos y se trasladó la opción de hacer aportaciones en el siguiente Consejo. Así lo hicimos algunas asociaciones y grupos políticos, dando cuenta de algunas cuestiones que resultaban muy preocupantes en cuanto al contenido del documento, entre otras, la falta de presupuesto del mismo.

Según el artículo 16 del Decreto Legislativo 1/2023, que regula las políticas de igualdad en Euskadi, los planes para la igualdad deben contar con Presupuesto y Objetivos, acciones y sistemas de implantación, seguimiento, evaluación y rendición de cuentas con sus correspondientes indicadores. El Plan aprobado en Junta de Gobierno sigue careciendo de Objetivos y sobre todo, de un Presupuesto específico que permita llevar adelante las acciones previstas. Así mismo, el artículo 16.5 establece que este plan debe incorporarse a los objetivos estratégicos de la propia institución, acerca de lo cual carecemos también de información.

Por todo ello, la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué razón el V Plan para la Igualdad carece de presupuesto? ¿Cómo van a desarrollar las acciones si no cuentan con compromisos presupuestarios?

- Todos los planes para la igualdad institucionales deben ser informados por Emakunde antes de su aprobación, tal y como lo establece el artículo 16.6. ¿Ha sido este plan informado? ¿Qué recomendaciones ha dado Emakunde al respecto?

- ¿Por qué se mantiene como compromiso de presupuesto para la igualdad un 1% del presupuesto general, si los estándares de calidad para las políticas de igualdad establecidos actualmente son del 1,5%?

- ¿Cómo van a integrar los objetivos, indicadores y acciones de este plan en el plan estratégico de esta institución?

Donostian, 2025eko otsailaren 6an

Sandra Barrenetxea Díez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Intervienen en este punto el Sr. García Villanueva y la Sra. Barrenetxea Díez, en los términos que

Egunerokoan grabatu dira.

*(10:50ean Vanessa Velez andrea bilerara sartu da).*

*(10:51n Izar Hernando andrea bilerarik atera da).*

*(10:52an Kerman Orbegozo jauna eta Izar Hernando andrea bilerara sartu da).*

**11. – Interpelazioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, migratzaileen ezohiko erregularizazioari eta Udalaren zereginari buruzkoa.**

Interpelazio hau irakurritzat eman da:

"Elkarrekin Donostia udal talde mistoaren bozeramaile Victor Lasak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 97. artikuluaren babesean, INTERPELAZIO hau aurkezten dio Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi ordezkari Maria Jesus Idoetari, migratzaileen ezohiko erregularizazioari eta Donostiako Udalaren zereginari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Migrazioa etengabeko giza fenomenoa da, eta migratzaileak gure gizartearen eta gure udalerrien parte aktiboa dira. Donostian milaka bizilagun migratzaile bizi dira, hirian lan egiten dute eta hiriko bizitza komunitarioan parte hartzen dute, funtsezko sektoreei eusten eta ongizate kolektiboa lortzen lagunduz.

Hala ere, pertsona asko administrazio-egoera irregularrean daude, bizitzeko eta lan egiteko legezko bideetara iristeko dauden egiturazko oztopoengatik. Egoera horrek zaurgarritasun- eta prekarietate-egoerak, lan-esplotazioa eta oinarrizko eskubideak baliatzeko zailtasunak sortzen ditu, gizarte-kohesioari ere eragiten dio eta bazterketa-dinamikak sustatzen ditu.

Testuinguru horretan, Estatuan migratzaileen ezohiko erregularizazioa bultzatzen ari da; mobilizazio sozial eta instituzional zabal batek babesten du erregularizazio-prozesu hori, justizia sozialeko eta giza eskubideen defentsarako neurri gisa. Udalek, herritarrengandik gertuen dauden administrazioak diren aldetik, funtsezko zeregina

resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 10:50h la Sra. Vélez de Pablo se incorpora a la sesión).*

*(A las 10:51h la Sra. Hernando Ibero se ausenta de la sesión).*

*(A las 10:52h el Sr. Orbegozo Uribe y la Sra. Hernando Ibero se incorporan a la sesión).*

**11. – Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la regularización extraordinaria de personas migrantes y el papel del Ayuntamiento.**

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Dr. Víctor Lasa, Portavoz del Grupo Municipal Mixto Elkarrekin Donostia, al amparo de lo establecido en el artículo 97 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN, dirigida a la Concejala Delegada de Servicios Sociales, Dña. María Jesús Idoeta, relativa a la regularización extraordinaria de personas migrantes y el papel del ayuntamiento de Donostia.

JUSTIFICACIÓN

La migración es un fenómeno humano constante y las personas migrantes forman parte activa de nuestra sociedad y de nuestros municipios. En Donostia viven, trabajan y participan en la vida comunitaria miles de vecinos y vecinas migrantes, contribuyendo al sostenimiento de sectores esenciales y al bienestar colectivo.

Sin embargo, muchas personas se encuentran en situación administrativa irregular debido a las barreras estructurales existentes para acceder a vías legales de residencia y trabajo. Esta circunstancia genera situaciones de vulnerabilidad, precariedad, explotación laboral y dificultades en el ejercicio de derechos básicos, afectando también a la cohesión social y alimentando dinámicas de exclusión.

En este contexto, se está impulsando en el Estado una regularización extraordinaria de personas migrantes, respaldada por una amplia movilización social e institucional, como medida de justicia social y defensa de los derechos humanos. Los ayuntamientos, como administraciones más cercanas a la ciudadanía, desempeñan un papel

dute gizarteratze-prozesuetan, bai eta errotzea eta tokiko komunitatearekiko lotura erreala egiaztatzean.

Horiek horrela, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Donostiako Udalak zergatik ez du orain arte jarrera publiko argirik adierazi administrazio-egoera irregularrean dauden migratzaileen ezohiko erregularizazioa babesteko, nahiz eta giza eskubideak eta justizia soziala bermatzeko neurri bat izan?

2. Zure ustez, zer egitkizun hartu behar du bere gain Udalak prozesu horretan, bere eskumenen esparruan, pertsona horiek gizarteratzea eta erregularizazioa benetan eskuratzea errazteko?

3. Gaur egun, zer udal-mekanismo daude errotzeari, bizikidetzari edo gizarteratzeari buruzko txostenak egiteko, eta Udala nola ari da bermatzen prozedura horiek eskuragarriak, arinak eta segurtasun juridikokoak izatea?

4. Udal Gobernuak aurreikusita al dauka zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileei arreta ematera bideratutako gizarte- eta administrazio-zerbitzuen baliabideak indartzea, era horretan prekarietate-, abusu- edo ustiapen-egoerak saihesteko?

5. Udal Gobernuak ba al du asmorik eskura dauden tresnen bidez (erroldatzea, txosten sozialak edo beste udal-ziurtagiri batzuk) aktiboki jarduteko, udalerriko migratzaileak erregularizazio-prozesua berme osoz abian jar dezaten errazteko?

Donostian, 2026ko otsailaren 6an

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea”.

Mª Jesus Idoeta eta Arantza Gonzalez andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**12. – Interpelazioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, GLLei buruzkoa.**

clave en los procesos de inclusión y en la acreditación del arraigo y la vinculación real con la comunidad local.

Por lo tanto, presentamos la siguiente interpelación:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué el Ayuntamiento de Donostia no ha manifestado hasta el momento una posición pública clara de apoyo a la regularización extraordinaria de personas migrantes en situación administrativa irregular, pese a tratarse de una medida de garantía de derechos humanos y justicia social?

2. ¿Qué papel considera que debe asumir el Ayuntamiento en este proceso, en el marco de sus competencias, para facilitar la inclusión y el acceso efectivo de estas personas a la regularización?

3. ¿Qué mecanismos municipales existen actualmente para la elaboración de informes de arraigo, convivencia o inserción social, y cómo se está garantizando que estos procedimientos sean accesibles, ágiles y con seguridad jurídica?

4. ¿Tiene previsto el Gobierno municipal reforzar los recursos de los servicios sociales y administrativos destinados a atender a la población migrante en situación de vulnerabilidad, con el fin de evitar situaciones de precariedad, abuso o explotación?

5. ¿Piensa el Gobierno municipal colaborar activamente, mediante los instrumentos disponibles como empadronamiento, informes sociales u otros certificados municipales, para favorecer y facilitar que las personas migrantes del municipio puedan acceder con garantías al proceso de regularización?

Donostia, a 06 de Febrero de 2026

Dr Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia”.

Intervienen en este punto las Sras. Idoeta Madariaga y González García, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**12. – Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, en relación con las AES.**

Interpelazio hau irakurritzat eman da:

"Arantza González García Elkarrekin Donostia taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, GLLei buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Gizarte Zerbitzuetako eta Ekintza Komunitarioko zinegotzi ordezkari Idoeta andreari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Iaz, egiturazko premia jakin batzuk Gizarte Larrialdietarako Laguntzekin (GLL) ase behar zituzten pertsona askok laguntza horiek ez zituzten abuztura arte jaso.

Badirudi aurten egoera berbera izango dela: izan ere, araudiaren arabera laguntza horiek jaso ahal izatea egiaztatzen duten pertsonek itxaron egin beharko dute, Udalak gutun bidez jakinarazi dielako gizarte-zerbitzuek deituko dietela 2026ko lehen seihilekoan, eta soilik ekainean dei hori jaso ez badute jarri behar direla haiek harremanetan gizarte-zerbitzuekin.

Joan den urtean, apiriletik aurrera, GLLen ordainketan egon zen atzerapenei buruz galdetu genuen behin eta berriz. Zehazki, Udalbatzaren uztaileko bilkuran, gure taldearen ekimenez, aho batez onartu zen mozio bat, zeinean udal-gobernuari eskatzen baitzitzaion "dagozkion kudeaketak egin ditzala GLLen eskaera guztien ordainketa arintzeko horiek jasotzeko eskubidea dutenei". Aurten ere ez dirudi hori gertatuko denik.

Joan den urtean, zinegotziak behin baino gehiagotan adierazi zuen laguntzak behar zituen inor ez zela gelditu laguntza horiek jaso gabe; hala ere, ohiko gastuei aurre egiteko laguntza horiek behar dituen norbaitek, hala nola etxebizitza-, energia- edo elikadura-gastuak ordaintzeko, bai eta hainbat sistema publikok ordaintzen ez dituen gastuei aurre egiteko –etxetresnak, arropa, hezkuntza, prestakuntza edo osasun-arretako gastuak ordaintzeko–, laguntza horiek sei hilabete baino gehiagoko atzerapenarekin jasotzeak ez du ezertarako balio. Horrek estresa eta antsietatea areagotu ditzake laguntza horiek behar dituzten baina une egokian jasotzen ez dituzten pertsonengan.

Iaz, egoera hori justifikatzeko, aipatu zen oinarrizko gizarte-zerbitzuak greban zeudela, eta horren ondorioz, espedienteak pilatzen ari zirela. Hala ere, aurten arazo hori konponduta egon beharko litzateke, plantilla handitu egin baita.

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Arantza González García, concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguientes INTERPELACIÓN a la concejala delegada de Servicios Sociales y Acción Comunitaria, Sra. Idoeta, en la Comisión de Servicios a las Personas, en relación con las AES.

JUSTIFICACIÓN

El año pasado, muchas de las personas que necesitan cubrir determinadas necesidades estructurales con las Ayudas de Emergencia Social (AES), no las recibieron hasta el mes de agosto.

Este año parece que la situación va a ser la misma, ya que personas que, de acuerdo con la normativa, acreditan poder recibir esas ayudas, van a tener que esperar a recibirlas porque el Ayuntamiento les ha comunicado por carta que los servicios sociales les llamarán a lo largo del primer semestre de 2026, y que solo si en junio no ha recibido esa llamada se pongan en contacto con los servicios sociales.

El año pasado insistimos desde el mes de abril con los retrasos en el pago de las AES. De hecho, en el Pleno de julio, a iniciativa nuestra, se aprobó por unanimidad una moción en la que se pide al gobierno municipal *"realizar las gestiones oportunas para agilizar el pago de todas las solicitudes de AES a quienes tienen derecho a su percepción"*. No parece que eso vaya a pasar tampoco este año.

El año pasado la concejala manifestó en varias ocasiones que ninguna persona que necesitaba las ayudas dejaba de percibirlas; sin embargo, de poco sirve que algo que se necesita para poder hacer frente a gastos ordinarios como la vivienda, los energéticos, la alimentación; u otros como el mobiliario o electrodomésticos, vestido, educación y formación y atención sanitaria, no cubiertas por los diferentes sistemas públicos, se abonen con más de medio año de retraso. Eso puede generar un aumento del estrés y de la ansiedad en las personas que las necesitan pero no las reciben en el momento adecuado.

El año pasado también justificó que la huelga de los servicios sociales de base estaba generando una acumulación de expedientes. Sin embargo, este año ese problema se debería haber resuelto, puesto que se ha ampliado la plantilla.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Udal-gobernuak zergatik ez ditu aurreikusi GLLen eskaera guztiei erantzuteko behar diren baliabideak, horiek jasotzeko eskubidea duen inork urte erdi baino gehiago itxaron behar ez izateko?

2. Nola saihestuko du udal-gobernuak GLLak jasotzeko eskubidea aitortuta duten pertsonek urte erdi edo gehiago itxaron behar izatea?

Donostian, 2026ko otsailaren 6an

Arantza Gonzalez Garcia
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia".

Mª Jesus Idoeta eta Arantza Gonzalez andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**13. – Galdera, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Matrikulazio kopuruaren jaitsierak Donostiako eskoletan ekarriko dituen aldaketen gainean.**

Interpelazio hau irakurritzat eman da:

"EH Bildu udal taldeko zinegotzi Izar Hernando Iberok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikulua oinarri, galdera egiten dio Iñigo García Ingurumeneko zinegotzi ordezkariari, hari buruzko azalpenak ahoz eman ditzan Pertsonen Batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

Ez da gauza berria pixkanaka gure ikasgeletan haur gutxiago daudela, eta azken asteetako datuek halaxe berretsi dute. Jaiotze-tasaren jaitsierarekin, Donostiako heziguneetan ere matrikulazioa behera egiten ari da. Horren adibide argia da *Anunciata* ikastetxearen itxiera, 213 ikasle eta haien familiak egoera ziurgabean utzi dituena. Era berean, komunikabideetan argitaratu denez, *Katalin Erauso* eskola izan daiteke ixten hurrena, bi urteko haurren ikasgela itxiko baitu 26/27 ikasturtean. Lucia Torrealday Hezkuntza Politiken kontseilariordeak adierazitakoaren arabera, Donostiako zentro desberdinetan integrazio prozesu batean lanean ariko litzateke hezkuntza saila eta, konkretuki, *Amara Berri* eskolarengan jarrita legoke fokoa.

Por ello, realizamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué razón el gobierno municipal no ha previsto los medios necesarios para atender todas las solicitudes de AES para que ninguna persona con derecho a recibirlas tenga que esperar más de medio año?

2. ¿Cómo va a evitar que las personas que tienen el derecho reconocido a recibir las AES tengan que esperar medio año o incluso más?

Donostia, a 6 de febrero de 2026

Arantza González García
Concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia".

Intervienen en este punto las Sras. Idoeta Madariaga y González García, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**13. – Pregunta, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre los cambios que provocará en los colegios de Donostia el descenso en el número de matrículas.**

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH Bildu, presenta, al amparo del artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente pregunta, al concejal delegado de Medio Ambiente, Iñigo García, para su respuesta oral en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

No es una novedad que hay cada vez menos niños y niñas en nuestras aulas, tal y como confirman los datos de las últimas semanas. Con el descenso de la natalidad, la matriculación en los centros educativos de San Sebastián está también descendiendo. Un claro ejemplo de ello es el cierre de colegio La Anunciata, que ha dejado a 213 alumnos y alumnas y sus familias en una situación de incertidumbre. Asimismo, los medios han publicado que el próximo centro en cerrar sus puertas podría ser la escuela Katalin Erauso, ya que en el curso 26/27 cerrará el aula de dos años. Según informa Lucia Torrealday, viceconsejera de Políticas Educativas, el Departamento de Educación estaría trabajando en un proceso de

Integrazio prozesu horren nolakotasuna, baina, ez dago guztiz argi.

Hori horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako galdera hauek egiten ditu:

1. Zein da Donostiako Udalak duen informazioa, Anunciata ikastetxearen itxieraren aurrean ikasleek jaso dituzten aukeren inguruan? Noiz izan zuen itxiera horren berri Udalak?

2. Ba al du Donostiako Udalak datozen ikasturteei begira Katalin Erauso ikastetxeak izango duen etorkizunaren berri? Zein dira oraingoz mahai-gainean dauden zehaztapenak epeei dagokienean? Zein integrazio prozesu ari da lantzen hezkuntza saila?

3. Donostiako Udalak egina du tokiko hezkuntza planifikazioari dagokion diagnostikoa? Diagnostikoa osatu gabe badago, aurreikusita du Donostiako Udalak diagnostiko hori osatzeko parte hartze prozesurik?

4. Zein laguntza eskainiko dio Donostiako Udalak Hezkuntza Sailari integrazio prozesu hau ahalik eta egokien egin dadin? Nola bermatuko du Hezkuntza Sailak inplikatutako hezkuntza komunitateen, auzoko eragileen eta Udalaren parte hartzea?

Donostian, 2026ko otsailaren 6an

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Iñigo Garcia jaunak eta Izar Hernando andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(11:12an Ana Lopez andrea bilerara sartu da).*

**14. – Galdera, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, Bidebietako kultur etxearen gainean.**

integración en diferentes centros educativos de San Sebastián y, en concreto, el foco estaría en la escuela Amara Berri. No obstante, la naturaleza de este proceso de integración no está del todo clara.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe formula las siguientes preguntas:

1. ¿De qué información dispone el Ayuntamiento de San Sebastián sobre las posibilidades que se han ofrecido al alumnado del colegio La Anunciata ante su cierre? ¿Cuándo tuvo conocimiento el Ayuntamiento de dicho cierre?

2. ¿Conoce el Ayuntamiento de San Sebastián el futuro del centro Katalin Erauso de cara a los próximos cursos escolares? ¿Cuáles son las especificaciones que por el momento están sobre la mesa en cuanto a plazos? ¿Qué proceso de integración está abordando el Departamento de Educación?

3. ¿Tiene elaborado el Ayuntamiento de San Sebastián el diagnóstico correspondiente a la planificación educativa local? En caso de que el diagnóstico está incompleto, ¿tiene previsto el Ayuntamiento de San Sebastián algún proceso participativo para completarlo?

4. ¿Qué apoyo ofrecerá el Ayuntamiento de San Sebastián al Departamento de Educación para que este proceso de integración se realice de la mejor manera posible? ¿Cómo garantizará el Departamento de Educación la participación de las comunidades educativas implicadas, de los agentes del barrio y del propio Ayuntamiento?

San Sebastián, 6 de febrero de 2026

Izar Hernando Ibero
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Intervienen en este punto el Sr. García Villanueva y la Sra. Hernando Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 11:12h la Sra. López Loiarte se incorpora a la sesión).*

**14. – Pregunta, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la casa de cultura de Bidebieta.**

Interpelazio hau irakurritzat eman da:

"Arantza González García Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 135. artikuluaren babesean, Bidebietako kultur etxeari buruzko GALDERA hauek aurkezten dizkio Gobernantza Ireki, Digital eta Kolaboratiboko zinegotzi ordezkari López andreari, Zerbitzu Orokorren Batzordean AHOZ ERANTZUTEKO.

JUSTIFIKAZIOA

Bidebieta auzoko bizilagunek denbora asko daramate auzorako kultur etxe bat eskatzen. Ekialdeko Barrutiko Plan Estrategikoan identifikatutako kultura-gabezietako bat ere bada.

2026ko aurrekontua onartzeko izapidean, udal-gobernuak gure udal-taldearen zuzenketa bat onartu zuen, Bidebietan kultura-etxe bat irekitzeko aukera aztertzeko. Horregatik, honako hauek aurkezten ditugu:

AHOZ ERANTZUTEKO GALDERAK

1. Zer kudeaketa egiten ari da udal-gobernua Bidebietak kultur etxe bat izan dezan?

2. Egutegi zehatzik finkatuta al dago Bidebietak kultur etxe bat izan dezan?

3. Udal-gobernua bildu al da bertako auzokideekin, Bidebietan kultur etxe bat izateko aukerak haiekin batera aztertzeko?

Donostia, 2026ko otsailaren 6an

Arantza Gonzalez Garcia
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia".

Ana Lopez eta Arantza Gonzalez andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(11:19an Ana Lopez andrea bilerarik atera da).*

**15. – Galdera, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, gizarte-zerbitzuen erakunde arteko**

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Arantza González García, concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta las siguientes PREGUNTAS PARA RESPUESTA ORAL a la concejala delegada de Gobernanza Abierta y Cultura, Sra. López, en la Comisión de Servicios a las Personas, en relación con la casa de cultura de Bidebieta.

JUSTIFICACIÓN

El vecindario del barrio de Bidebieta lleva mucho tiempo reclamando una casa de cultura para el barrio. También es uno de los déficit culturales que se identifican en el Plan Estratégico del Distrito Este.

En el trámite de aprobación del presupuesto de 2026, el gobierno municipal aprobó una enmienda de nuestro grupo municipal para estudiar la apertura de una casa de cultura en Bidebieta, motivo por el que realizamos las siguientes:

PREGUNTAS PARA RESPUESTA ORAL

1. ¿Qué gestiones está realizando el gobierno municipal para que Bidebieta disponga de una casa de cultura?

2. ¿Tiene previsto algún calendario concreto para que Bidebieta disponga de una casa de cultura?

3. ¿Se ha reunido con el vecindario del barrio para analizar conjuntamente las posibilidades de contar con una casa de cultura en Bidebieta?

Donostia, 6 a febrero de 2026

Arantza González García
Concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia".

Intervienen en este punto las Sras. López Loiarte y González García, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 11:19h la Sra. López Loiarte se ausenta de la sesión).*

**15. – Pregunta, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la mesa**

**mahai politiko-teknikoari buruzkoa.**

Interpelazio hau irakurritzat eman da:

